

Tokiko agenda 21: *Iraunkortasunerako Udal prozesua* *Ean*

II. Dokumentua: Iraunkortasunerako Ekintza-Plana



2005eko abendua



UDALTALDE 21 URDAIBAI-BUSTURIALDEA

UDALTALDE 21 URDAIBAI-BUSTURIALDEA ESKUALDE-BATZORDEA

IHOBE, S.A.

Xabier González. Teknikaria
M^a Mar Alonso. Teknikaria
Agate Goyarrola. Teknikaria
Josu Sanz. Teknikaria

Gernika-Lumoko Lanbide Ekimenak Zentroa

Amagoia Beika. Zuzendaria

U21 Urdaibai-Busturialdeko Batzorde Teknikoa

Joseba Irazabal. Udaltalde 21ko Teknikari-koordinatzailea
Rafa Ensunza. Gernika Udaleko Izartu-ren Teknikaria
Gaizka Aurrekoetxea. Bermeo Udaleko Ingurumen Teknikaria

Eako Udala

Arduradun politikoak
Asier Madarieta Juaristi
Koldo Gonzalo Sanz
Miren Zuriñe Juaristi Ortuzar
Aitor Larrinaga Cortabitarte
Mari Luz Lekue Lizundia
Iñaki Renteria Corta
Ane Miren Eiguren Arano



Udal parte-hartzaileak

Pedro Isasi. Ajangizko alkatea
Andoni Mingo. Arratzuko alkatea
Joseba Andoni Apraiz. Bermeoko zinegotzia
Javier Gondra. Busturiako alkatea
Asier Madarieta. Eako alkatea
Miren Lourdes Eiguren. Elantxobeko zinegotzia
Ager Lejarreta. Ereñoko zinegotzia
Iñaki Madariaga. Errigoitiko alkatea
Gorka Uria. Foruko zinegotzia
Miren Arantza Madariaga. Gautegiz-Arteagako alkatesa
Juan Félix Arejita. Gernika-Lumoko zinegotzia
Gurutze Solabarrieta. Ibarrangeluko zinegotzia
José Antonio Bastegieta. Kortezubiko alkatea
Ramón Urresti. Mendatako alkatea
Joseba Iñaki Lejarraga. Morgako alkatea
Miren Nekane Garayo. Mundakako alkatesa
Frantzisko Jabier Ondarza. Muruetako alkatea
Francisco Javier Gezuraga. Muxikako alkatea
Lourdes Aboitiz. Nabarnizko alkatesa
José Félix Goiri. Sukarrietako zinegotzia.

Aholkularitza-taldea: Ingurune S.L.-Prospektiker, S.A.

Julen Rekondo Bravo. Teknikaria
Arkaitz San José Martínez. Teknikaria
Jon Torre. Teknikaria
Ane Bustinduy. Teknikaria
Ibón Zugasti. Teknikaria
Mikel Irasuegi. Teknikaria

0. AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....

2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA.....

3. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

3.1 HELBURUAK

3.2 EGITURA ETA EDUKIAK

3.2.1 EKINTZA-PLANAREN EGITURA

3.2.2 EKINTZA-PLANAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

3.2.3 KARAKTERIZAZIO EKONOMIKOA ETA EKINTZAK BURUTZEKO ERANTZUKIZUNA

3.2.4. EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA.....

3.3 ILDO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZEN LABURPENA, ETA HELBURUEN LEHENTASUNA

3.4 EKINTZEN FITXA DESKRIBATZAILEAK

4. EKINTZA-PLANAREN SEGIMENDUA.....

4.1 AURKEZPENA

4.2. IRAUNKORTASUNERAKO ADIERAZLEEN SISTEMA

4.2.1 EZAUGARRIAK

4.2.2 HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

4.2.3 METODOLOGI-ERREFERENTZIAK.....

4.2.4 PROPOSATUTAKO ADIERAZLEEN SISTEMA

4.2.5 ADIERAZLEAK DESKRIBATZEKO FITXAK

1. AURKEZPENA

Tokiko Ekintza-plana tokiko kudeaketa eta politikak iraunkortasunaren alde zuzentzeko borondatezko tresna bat da, eta lortu beharreko helburu-multzo baten bidez eta eskala lokalean hainbat urteko epean gauzatu beharreko ekintzen bidez egituratzen da. Ekintza-plana Tokiko Agenda 21en funtsezko tresna eratzaileria da.

Tokiko Ekintza-planaren funtsezko helburua da udalerriri iraunkorragorantz aurrera egitean aurrerapen ekonomikoa, zuzentasun soziala eta ingurumenaren babesa bateratzea sustatzen eta bateratzen uzten duena eta herritarren bizi-kalitatea hobetzen duena.

Tokiko Ekintza Planak udalerrian aurrez egindako azterketa eta diagnostiko zabal batean oinarritzen dira. Azterketa horren bidez, gaur egungo barne-ahulezia eta –indar nagusiak eta etorkizuna muga dezaketan aukerak eta mehatxuak identifikatzen dira.

Ekintza-planak, batetik, plangintza estrategikorako tresna dira, udalerriri gisa lortu beharreko helburuak eta ikuspegia ematen baitituzte estatutik eta egungo joeratik abiatuz; eta, bestetik, hainbat sektoretako ikuspegiaren eta lehentasunen adostasuna dira.

Zentzu honetan, agiri honetan kontuan izandako kapituluak ondoko hauek dira:

DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA

Ondoko hauek barne hartzen ditu: Egungo egoeraren Diagnostikoa, udalerriri kontuan hartutako gaikako eremu bakoitzean dituen joerak eta, hortik aurrera, Ekintza Planaren geroago islatuta agertzen diren jarduteko helburu erlazionatuen ezarpena.

IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA- PLANA

Eako Iraunkortasunerako Ekintza-planaren edukien deskribapena eta karakterizazioa barne ditu, Ildo Estrategikoen, Ekintza-programen eta Ekintzen azalpenaz zein deskribapenez, eta Planaren karakterizazio zehatzez.

EKINTZA- PLANAREN SEGIMENDUA

Eskema moduan, Ea udalerriko Tokiko Agenda 21 prozesuaren segimendurako diseinatutako Iraunkortasunerako Adierazleen Sistemaren deskribapena eta karakterizazioa aurkezten da, udalerriko egoera eta Iraunkortasunerako Ekintza-planaren ezarpeneko garapen-maila urtean behin ebaluatzeko moduan.

2. DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA

Azterketako eremu desberdinetan definitutako Diagnostikoko elementuetatik aurrera, ondoko orrialdeetan Iraunkortasunerako Ekintza-planaren esparruan garatzekoak diren jarduteko programen identifikazioari ekiten zaio.

Datozen orrialdeetan Diagnostikoko elementuak eta lotuta dituzten iraunkortasun-helburuak taulen moduan erakusten dira, aztertutako gai desberdinen arabera egituraturik:

- Garapen soziala
- Garapen ekonomikoa
- Lurralde-antolamendua eta hirigintza
- Ingurumen-bektoreak
- Udal-kudeaketa eta herritarren parte-hartzea

Gai bakoitzari dagokionez, Diagnostikoko Elementuen hasierako zerrenda bat erakusten da, bi zutabetan egituratuta: alde batetik, kontuan hartutako gaiaren Diagnostikoko Elementuen multzoa; eta bestetik, erlazionatuta dauden iraunkortasun-helburuak.

Diagnostikoko zenbait elementu desberdinen artean dagoen lotura estua dela eta, kasu batzuetan horiek multzokatzea erabaki da, eskuineko zutabearen planteatutako programak elementuen multzo oso bati lotuta egonik.

Iraunkortasun-helburuak *Ekintza-Programak* bihurtuta aurkituko ditugu 3. kapituluan, Ildo Estrategikoetan edo helburu orokor handietan kokatutako helburu zehatzen antzera. Halaber, Programa bakoitza Planaren ekintza zehaztuetan adarkatuko da.

Diagnostikoko elementuen eta iraunkortasun-helburuen taulak

GARAPEN SOZIALA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	IRAUNKORTASUN-HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1980ko amaieratik 2004ra arte, biztanle-kopurua nahiko berdin mantendu da, eta egun 820 biztanle inguru bizi da. ▪ Kanpoan bizi edo lan egiten duten herritarrak asteburuetan edo oporretan etortzen dira. ▪ Egitura demografikoa nahiko zaharra da. Hala ere, gazteek bertan bizitzeko aukera egin dute. ▪ Biztanleria gehiena herrigunean, Natxituan eta Bedaroan bizi den arren, badira beste hainbat gune edo auzo gehiago: Olagorta, Aldebaster, Angelutxu, Ola, Alloa, Urtza eta Mendiola. ▪ Gizarte zerbitzuen kudeaketa udaleko sail baten bidez gauzatzen da, eta bazterketaren eragina oso urria da. ▪ Osakidetzako kontsultategia eta farmazia bat badira, eta udalerriri dagokion anbulatoria Lekeitiokoa da. ▪ Eako Herri Eskola zabaldu berri da, eta 0-3 urte bitarteko zikloan 9 ikasle D hizkuntz-ereduan matrikulatu dira. ▪ Euskaldun alfabetatuen ehunekoa oso handia da, baina euskararen erabilera murriztu delako pertzepzioa dago. ▪ Hirugarren adinekoentzako zentrorik ez dago. ▪ Kirol-, eta aisialdi-ekipamenduen falta somatzen da. ▪ 2004ean, Udalak 4.000 euro bideratu zituen Mitch hurakanak eragindako kalteak arintzeko eta okindegi bat eraikitzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erabilgarri dauden gizarte-laguntzako baliabideei buruz orientatzea eta haien berri herritarrei ematea. ▪ Egoera txarrean dauden sektoreei laguntza ematea. ▪ Herritarren oinarrizko beharren estaldura bermatzea. ▪ Hezkuntza- eta kultur ekipamendu eta zerbitzu hezigarriak eta kulturalak herritarrentzat, erabilgarri eta eskuratzeko moduan jartzea. ▪ Teknologia berriak jende guztiaren esku egon daitezen egitea. ▪ Herriko jarduera kulturalak dinamizatzea. ▪ Garapen iraunkorra, bakea eta kulturen arteko harremana helburu dituen hezkuntza bultzatzea. ▪ Oinarrizko osasun-ekipamendu eta –zerbitzuak sanitarioak herritarrek erabili eta eskuratzeko moduan jartzea. ▪ Udalaren jarduera solidarioa sustatzea.

GARAPEN EKONOMIKOA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	IRAUNKORTASUN- HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalerriko Barne Produktu Gordina (BPG) Busturialdea, Bizkai eta EAEkoa baino nabarmen baxuagoa da ▪ Herriko sektore ekonomiko nagusia zerbitzuak dira, 2001ean biztanleria landunaren %60,8 hirugarren sektorean aritzen baitzen.. ▪ Herritar pilo batek kanpoan egiten du lan, eta berezko egitura ekonomikoren falta botatzen da. ▪ Biztanleria aktiboaren tasa (%41,1) baxua da, eta langabeziaren eragina ere txikia da. ▪ Azken boladan nekazaritza eta abeltzaintzako aktibitateak murriztu dira, eta beraien ordeztu pinu eta eukaliptoaren baso-landaketak egin dira ▪ Garai batean Celulosas Artibai izeneko paper-fabrikak okupatzen zuen tokian orain industriagune berri bat funtzionatzeko asmoa dago. ▪ Bedarosan, arrain-haztegi bat dago, eta Natxituan, egurrezko eraikuntzara dedikatutako Egoin S.L. enpresa (100 langile inguru). Halaber, eraikuntzari lotutako aktibitate handia dago: Aldekogarai, Gaztelu, Mdarixa, Arana anaiak, Gorosti zaharra indusketak, Txuko iturgintza, Iñaki margolaria Iñaki tailer elektromekanikoa eta Egoin bera. ▪ Hiru landetxe martxan daude: Andutza Angelutxu auzoan, Ea astei Olagorta auzoan eta Basolore herrigunean. ▪ Dauden ostalaritzako ekipamenduak ondokoak dira: Ermintxo jatetxea-hotela, Ttakun taberna, Aritza jatetxea, Arrantzale taberna, Txangurru taberna Eskoikiz taberna, Itsasondo taberna, Herriko taberna, Eliz-ondo taberna. ▪ Merkatari elkarte bat dagoen arren, azken urteetan saltoki eta zerbitzuen hornidura murriztu da. ▪ Eskualdeko industrialde baten proiektuan (Muxika) sartu da udalerria. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herriko enpresa-sektorea kultura ekintzailean, berrikuntza teknologikoan eta ingurumen-kalitatean prestatzea eta sustatzea. ▪ Herriko enpresen garapena bultzatzea. ▪ Ekonomia soziala sustatzea. ▪ Natur eta kultur ondarean oinarritutako garapen turistikoa indartzea ▪ Teknologia berrietan eta jakintzan oinarritutako jarduera ekonomiko berriak gara daitezzen egitea. ▪ Langabeei lanari buruzko informazioa eta orientazioa ematea. ▪ Lanerako prestakuntza sustatzea, lan-merkatuan errazago sartzeko. ▪ Lan-munduan sartzeko mekanismo lokalak eskaintzea. ▪ Langileen etengabeko prestakuntza hobetzea.

LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	IRAUNKORTASUN-HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalerria Urdaibaiko Biosfera Erreserbatik kanpo kokatuta dago. Busturialdea eskualde barruan Lea-Artibai ondoan dago. ▪ Natura 2000 Sareko gunerik ez izan arren, udalerriak garrantzizko elementuak ditu paisaia zein ekologia aldetik; Galdizko artadia, kasu. ▪ Ea ibaiak eta herriko bi hondartzek egoera ekologiko ona azaltzen dute. ▪ Basogintzako jarduerak hainbat ingurumen eragin ekarri dituzte, eta Olagortan bertan behera utzitako meategi bat dago. ▪ Ea bigarren egoitzako garapenak sustatzeko udalerrri moduan sailkatzen dute DOT/LAA-ek. ▪ Indarreko Arau Subsidiarioak 1996ko abuztuan onartu ziren. Hiri-lurzorua Eako herrigunean, Natxituan eta Bedaroan kontzentratuta dago. ▪ Lurzoru urbanizagarria antzineko paper-fabrikak hartutako lursailak dira. ▪ Etxebizitza-parkearen okupazio maila nahiko txikia da (%45,7), eta 400 eraikin okupatu gabe daude. ▪ Garraio publikoko autobus linea bakarra igarotzen da udalerritik; Bilbo-Lekeitio, eta zerbitzu eskasa ematen du. ▪ Ez dago Irisgarritasunerako Udal Planarik. ▪ Oinezkoentzat egokitutako aldeak Kaibidean eta Aritza kalean daude. ▪ Udan kotxez zirkulatu eta aparkatzeko arazo larriak sortzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hirigintzako plangintzaren ingurumen-eragina ebaluatzea. ▪ Hirigune degradatuak berreskuratzea. ▪ Auzo guztietan ekipamendu-hornikuntzak eta berdeguneak hobetzea. ▪ Erabilera-aniztasuna sustatzea hiriko hainbat sektoretan. ▪ Jendeak etxebizitza duin bat izateko lan egitea. ▪ Ondare historikoa eta arkitektonikoa zaintzea. ▪ Interes ekologikoa eta paisajistikoa duten gunek eta elementuak zaintzea eta berreskuratzea. ▪ Natur guneen eta gune erdinaturalen kudeaketa egokia sustatzea. ▪ Azpiegituren eta hiri-hazkuntzaren inpaktuak murriztea. ▪ Garraio kolektiboa sustatzea ▪ Joan-etorriak oinez eta bizikletaz egiteko moduan urbanizatzea udalerria. ▪ Mugikortasun-arazoak eta -fluxuak konpontzea garraio publikoari eta motorrik gabeko joan-etorriei lehentasuna emanez.

INGURUMEN-BEKTOREAK	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	IRAUNKORTASUN- HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Busturialdeko Ur Patzuergoak herriko uraren zikloa kudeatzen du. ▪ Edateko Uren Araztegi bat Eako herrigunean dago, eta Natxitua hornitzen duena Ajangizko araztegitik dator. Edateko uraren kalitatea egokitzat jotzen da. ▪ Ur-biltegitik, Urtubia parean, ur-bolumen handia galtzen da. ▪ Sektoreen araberako kontsumo-daturik ez izan arren, ziurrenik etxeetako sektorea da ur gehien kontsumitzen duena. ▪ Ur zikinen saneamendua herrigunean besterik ez dago gauzatuta. Natxituan egiten ari da eta Bedaroan falta da. ▪ Airearen kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko estaziorik ez izan arren, herrian ez dago arazorik alde horretan, ezta zaratari lotutako arazo nabarmenik ere ez. ▪ Energia elektriko gehien kontsumitzen duen sektorea etxeetakoa da (%55,8), eta azken urteetan udal-kontsumoaren hazkunde nabaria izan da, %20,6 gehiago. ▪ Gas-sarea herrigunean sartzeko obrak eginda daude. ▪ Poluituta egon daitezkeen lau gune dira: bi industrialak eta beste biak hondakindegia dira. ▪ 2003an, hiri-hondakinen batez besteko sorrera 1,48 kg biztanleko eta eguneko izan zen. Sortutako kopuru osotik %11,6 gaika biltzen da. ▪ Udararen zabor gehiago sortzen da, eta gaikako bilketaren zerbitzua handitzea beharrezkotzat jotzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ur-baliabideak behar bezala kontrolatzea eta kudeatzea. ▪ Ur-baliabideak poluitzeko arriskua murriztea. ▪ Administrazioan hondakinak minimizatzea eta kudeaketa egokia garatzea. ▪ Etxeetako hondakinak eta haien parekoak minimizatzea, eta birziklatutako eta balorizatutako kopurua handitzea. ▪ Jarduera-sektoreetan hondakinen kudeaketa optimizatzea. ▪ Poluituta egon daitezkeen lurzoruetan kontrol handiagoa ezartzea. ▪ Udalerriko energia-iturri garbien eta berriztagarrien erabileran aurrera egitea. ▪ Udal administrazioan energia zentzuz kontsumitzea eta energia-eraginkortasuna hobetzea. ▪ Udalerriko sektore guztietan energia aurrerzte eta energia-eraginkortasuna sustatzea. ▪ Zarata sortzen duten iturriak kontrolatzea. ▪ Udalerriko akustika-kalitatearen segimendua egitea. ▪ Jardueren ingurumen-portaera hobetzea sustatzea. ▪ Jardueren legezko egokitzapena bermatzea. ▪ Udalerriko jardueri eragiten dien arriskuen prebentziorako araudia betetzen dela ziurtatzea.

UDAL-KUDEAKETA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA	
DIAGNOSTIKOKO ELEMENTUAK	IRAUNKORTASUN- HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalean ondoko batzorde hauek funtzionatzen dute: Hirigintza, Gizarte-ongizatea, Gazteria, Kultura, Hondartzak eta Portua. ▪ Udalak ondoko erakunde hauetan esku-hartzen du: Busturialdeko Ur Patzuergoa, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mnakomunitatea, EUDEL, Urremendi-Mendi Nekazaritzako Elkarte eta Behargintza-Lanbide-Ekimenak Zentroa, Udaltalde 21 Urdaibai-Busturialdea. ▪ Udaletik herritarren partaidetzarako organoak edo batzarrak bultzatzen ari dira: Izartu programa, Altxikarreko obrak, Tokiko Agenda 21eko Foroa,... ▪ Hala ere, udaleko informazioa zabaltzeko beharra ikusten da, eta baita herriko arazoei irtenbidea topatzeko Plan Estrategikoa ere. ▪ Eskualde mailako elkarkidetzak eta proposamenak falta dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Iraunkortasunerako hezkuntza eta ingurumen-komunikazioa sustatzea. ▪ Tokiko Agenda 21en diseinuan eta kudeaketan herritarren parte-hartzea sustatzea. ▪ Udal administrazioaren funtzionamendua ingurumena kontuan hartuz garatzea. ▪ Udal-antolakuntza optimizatzea.

3. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

3.1. Helburuak

Iraunkortasunerako Ekintza-planaren helburuak Europako Hiri Iraunkorren Gutunean, "Aalborg-eko Gutuna", ezarritako iraunkortasunerako irizpide zuzentzaileak kontuan hartuta zehazten dira, ondoko modu sintetiko honetaz aditzera ematen direnak:

- Baliabide materialen, hidrikoen eta energetiko berriztagarrien kontsumo-erritmoa natur-guneek haiek berriztatzeko duten gaitasuna baino txikiagoa.
- Berriztagarriak ez diren baliabideen kontsumo-erritmoa baliabide berriztagarriak ordezkatzeko erritmoa baino txikiagoa.
- Poluitzaileen isurpen-erritmoa urak, aireak eta lurrak haiek xurgatu eta prozesatzeko duten gaitasuna baino txikiagoa.
- Ingurumen kalitatea, osasun publikoa eta aniztasun biologikoa mantentzea bizitza, gizakien ongizatea, landaredia eta fauna babesteko behar adineko mailan.
- Justizia soziala eta biztanleriaren oinarritzko beharrak gogobetetzea.
- Herritarrek eta tokiko sektoreek tokiko garapen iraunkorrean esku-hartzea.
- Tokiko aurrerapen ekonomikoa.


Iraunkortasunerako irizpide nagusi hauek Iraunkortasunerako Udal Diagnostikoan bildutako aspektuekin batera kontuan izateak udalerrarentzako iraunkortasun-helburu zehatz batzuk definitzea dakar. Helburu hauetatik eta beren hierarkizaziotik aurrera, Ildo Estrategikoen moduan zehaztutako Planaren helburu estrategikoak definitzen dira, Ekintza-planaren ardatz egituratzaileak osatzen dituztenak.

3.2. Egitura eta edukiak

3.2.1 Ekintza-planaren egitura

Tokiko Ekintza-planak lerro estrategikoen definizioan oinarriturik egituratzen dira, eta hain zuzen, lerro horiek planaren funtsezko helburuak osatzen dituzte.

Lerro estrategiko bakoitzak helburu espezifikoak ditu eta helburu horiek ekintza-programetan adierazten dira. Programa horiek ekintza-multzo batean gauzatzen dira, eta horiek planaren oinarritzko batasuna eta eraginkortasuna osatzen dute, eta aldi berean, karakterizazio zehatza eta espezifikoa eskatzen dute.



3.2.2. Ekintza-planaren oinarritzko ezaugarriak

Tokiko Ekintza-planek hainbat motatako ekintzak dituzte, lerro estrategiko edo ekintza-programa gisa planteatutako helburu jakin bat lortzeko bidean aurrera egiten laguntzen dutenak. Ekintza horiek maila hauetan sailka daitezke:

- **Sentsibilizazioa, parte-hartzea eta prestakuntza**

Iraunkortasunerako trebakuntza eta hezkuntzarekin, eta herritarren eta komunitate horretako hainbat eragileren parte-hartzea sustatzearekin lotutako jarduerak.

Adibideak: Eskoletako hezkuntza-kanpainak, Parte hartzeko organo egonkor bat sortzea Tokiko Agenda 21en segimendua egiteko, Eguzki-energiaren instalatzaileentzat ikastaroak antolatzea.

- **Araudia**

Arau hauek gehitzea edo aldatzea: lurraren erabilerak eta jarduerak arautzen dituztenak, ingurunearekiko inpaktuak mugatzen dituztenak, ingurumenaren kudeaketa hobetzen dutenak edo jasangarritasunerako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituztenak eta ingurumen-kostuen edo -abantailen barneratzen laguntzen dutenak.

Adibideak: Eguzki-energia sustatzen duten aginduak egitea, Aginduak udalez gaindiko ingurumen-arau berrienetara egokitzea, Lurzoru urbanizaezinaren erabileraren erregulazio-plan berezia egitea.

- **Pizgarri ekonomikoak**

Herritarren eta enpresen aldetik iraunkortasunerantz zuzendutako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituzten zergak, diru-laguntzak, finantziazio-lerroak edo beste tresna ekonomiko batzuk aldatzea, ingurumen-kostuak eta –abantailak barneratzen laguntzeko.

Adibidea: Zerga-deskontuak egitea eguzki-kolektoreen instalaziorako obrak egiteko baimena ematean.

- **Ekipamenduak eta azpiegiturak**

Ekipamenduak erosteko edo azpiegiturak bideratzeko ekintzak.

Adibideak: Ur-araztegiak eraikitzea, plaka fotovoltaikoak instalatzea, bizikletentzako bideak eraikitzea.

- **Iraunkortasun-irizpideak integratzea**

Udal kudeaketarekin edo tokiko administrazioaren funtzionamenduarekin lotutako hainbat alderditan iraunkortasun-irizpideak kontuan hartzen dituzten ekintzak.

Adibidea: Hiiri-plangintzan eta udalak produktuak erostean, ingurumen-irizpideak integratzea, tokiko administrazioaren funtzionamenduan jardunbide egokiak integratzea.

- **Azterketak eta planak**

Iraunkortasun-mailari buruzko arlo, prozesu edo arazo nagusiak hobeto ezagutzeko edo baloratzeko, edo Tokiko Ekintza-planak gauzatu ezin dituen ekintzak definitzeko aukera ematen duten azterketak egitea.

Adibideak: Bideen Inbentarioa egitea, konpostaje-instalazio baten bideragarritasun-azterketa egitea, eraikin publikoen auditoria energetikoa egitea.

- **Kudeaketa**

Iraunkortasuna lortzen laguntzen duten hainbat ekintza, udal-kudeaketarekin lotuta daudenak, eta ingurumen-kontrola, tramitazioak, esku-hartzeen eskaera eta beste hainbat alderdi kontuan hartzen dituztenak.

Adibideak: Azpiegitura jakin batek ingurumenean duen eraginaren segimendua egitea, ziklomotorren maila akustikoa kontrolatzea, udalez gaindiko administrazio baten esku-hartzea eskatzea.

3.2.3. Karakterizazio ekonomikoa eta ekintzak burutzeko erantzukizuna

Ekintza-plana gauzatzearen eta finantzatzearen ohiko arduradun nagusia udala da. Lehendik dituen arlo tekniko ia guztiak neurri handiagoan eta txikiagoan inplikatzeko dituzte, baita tokiko administrazioarekin lotutako enpresa emakidunak ere.

Udalerraren arabera, planak osotasunean garatzeko funtsezkoa izango da udalaz gaindiko tokiko erakundeek (mankomunitateak, eskualdeko garapen-agentziak, koadrilak,...) parte hartzea, bai arlo jakin batean dituzten eskumenengatik, eta bai Tokiko Agenda 21en prozesuaren dinamizazioan kasu jakinetan eduki dezaketen eginkizunagatik. Azkenik, garrantzitsua izango da Ekintza-planaren funtsezko arloetan eskumenak eta baliabideak dituzten udalaz gaindiko administrazioen parte-hartzea lortzea.

Ekintza-planek hainbat urteko programazioa izaten dute eta denbora-eskala desberdinetan ematen dira. Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, gehienez bost urteko epea ezarri ohi da, eta ekintzak honela banatzen dira: epe laburrekoak (urtebete), epe ertainekoak (2-3 urte) edo epe luzekoak (4-5 urte).

Ekintzen gauzatze-epeak hainbat irizpideren arabera esleitzen dira, besteak beste, ekintzaren lehentasuna, bideragarritasun ekonomikoa, beste ekintza batzuk baldintzatzen dituen ekintza eratzea edo ekintza ezartzeko behar den denbora.

Plana kudeatzeko, hasierako urte anitzeko programazioa udalen ohiko urtebeteko kudeaketa-programaziora pasatu beharko da, zehaztutako gauzatze-epeen arabera.

3.2.4. Ekintzen karakterizazioa

Tokiko Ekintza-planaren eraginkortasun eta funtzionalitate maximoa ziurtatzeko, beharrezkoa da ekintza bakoitza behar bazala zehatuta egotea, kudeaketa-tresna gisa erabili ahal izateko, betiere, kontuan hartuz, planaren helburua ez dela plan sektorial baten (adibidez, mugikortasun-plana, saneamendu-plan zuzentzailea) edo hirigintzako plan baten (hiri-antolakuntzarako plan orokorra edo plan partziala) zehaztasun-maila lortzea.

Ekintza bakoitzak fitxa deskribatzaile bat dauka eta fitxa horretako eremuak aldatu egin daitezke, baina oinarrizko batzuk izango lituzke, hain zuzen, hurrengo koadroan erakusten direnak:

EKINTZA BATEN OINARRIZKO FITXA DESBRIBATZAILEA	
Ekintzaren izenburua	Errreferente sintetikoa, baina ulergarria
Deskribapena	Ekintzaren oinarrizko definizioa eta karakterizazioa, hura gero gauzatzeko beharrezkoak diren gutxieneko elementuak ematen dituena.
Gauzatze-epea	Ekintza gauzatzeko edo ezartzeko gehienezko epea: motza (0-1 urte), ertaina (2-3 urte) edo luzea (4-5 urte).
Periodikotasuna	Ekintza egiteko proposatutako maiztasuna.
Lehentasuna	Ekintzaren lehentasun-maila (altua, ertaina, baxua) adierazten du, ekintzaren ingurumen-eraginaren, eragin sozialaren edo ekonomikoaren arabera, osasunean duen arriskua minimizatzea laguntzeagatik edo preskripzio arau-eramaileari erantzuteagatik.
Kostua	Ekintza gauzatzeko edo ezartzeko kostu zenbatetsia, ekintza bera martxan jartzeko eta mantentze-lanak egiteko kostuak barne.
Erakundeak	Ekintza gauzatzean edo ezartzean parte hartzen duten erakundeak.
Finantziarioa	Ekintzaren finantziario ekonomikoan parte hartzen duten edo har dezaketen erakundeak.
Adierazleak	Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Iraunkortasun Adierazleen Sistemaren adierazlea edo adierazleak, ekintzarekin zuzenean edo zeharka lotuta daudenak.
Gauzatzearen kontrola	Ekintzaren garapen- edo ezartze-maila adierazten du (hasteko zain, hasita, aurreratua, amaitzen, amaituta).

3.3 LERRO ESTRATEGIKOEN, EKINTZA-PROGRAMEN ETA EKINTZEN LABURPENA ETA HELBURUEN LEHENTASUNA

EAKO TOKIKO AGENDA 21

LERRO ESTRATEGIKOAK

EAKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.

LE2. UDALERRIAN INTERES EKOLOGIKOA ETA PAISAJISTIKOA DUTEN GUNEAK ETA ELEMENTUAK BABESTEIA.

LE3. HERRITARRENTZAKO EKIPAMENDUAK SORTZEA, ETA GARAPEN KULTURALA BULTZATZEA.

LE4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE APUSTU EGITEA, HIRIGUNEEN HOBETUNTZAREKIN JARRAITUZ ETA IRISGARRITASUNA BULTZATUZ.

LE5. NATUR-BALIABIDEEN (URA ETA ENERGIA) KONTSUMOA ZENTZUZKOA IZAN DADILA EGITEA ETA BERAIEN KUDEAKETA HOBETZEA, ETA HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEA.

LE6. UDAL ADMINISTRAZIOAREN KUDEAKETAN IRAUNKORTASUNA, KALITATEA ETA PARTE-HARTZEA SUSTATZEA.

LERRO ESTRATEGIKOEN, EKINTZA-PROGRAMEN ETA EKINTZEN AURRERAPENA EAKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.

P1.1 Egoera txarrean dauden sektoreentzako (emakumezkoak, 40 urtetik gorakoak, gazteak,...) enplegua sustatzeko programa.

- 1.1.1. Langabezian dauden sektoreei Gernikako Behargintzako jardueren gaineko informazioa hobetzea eta helbideratzea.
- 1.1.2. Udan antolatzen diren jarduera ezberdinetan (begiraleak, sorosleak,...) herriko sektore langabetuen enplegua leheneratzea eta bultzatzea.

P1.2 Ekonomia-iraunkortasuna eta –dibertsifikazioa sustatzeko programa

- 1.2.1. Udalerrian martxan dauden ekimen ekonomikoak mantentzea: Egoin S.L., Bedaroko arrain-haztegia, ...
- 1.2.2. Antzineko paper-fabrikak okupatzen zuen kokalekua berreskuratzea eta bertan bestelako ekimen ekonomiko bat garatu: industriagune bat, aisialdi-eremua, ...
- 1.2.3. Herrian dagoen eskaintza turistikoa indartzea eta bultzatzea: hiru landetxeak, hotela eta tabernak,...
- 1.2.4. Bertan behera utzitako nekazal lursailen inbentarioa egitea.
- 1.2.5. Udalerriko merkataritza-eskaintza mantentzea eta handitzea, merkatariekartearen esku-hartze aktiboarekin.
- 1.2.6. Lanbide ezberdinetako langileentzat (igeltseroak, iturginak, elektrikariak,...) konponbide bat bilatzea: lokal bat,...
- 1.2.7. Herriaren garapen ekonomikoa suspertzeko batzorde iraunkorra antolatzea.

LE2. UDALERRIAN INTERES EKOLOGIKOA ETA PAISAJISTIKOA DUTEN GUNEAK ETA ELEMENTUAK BABESTEA.

P 2.1. Kostaldea eta hondartzak babestu eta birsortzeko programa

- 2.1.1. Itsasertzaren kalitatea eta biodibertsitatea babesteko neurriak hartzea: arrantzaren aktibitatea kontrolatzea, haunkak biltzea,...
- 2.1.2. Eako hondartzan eta portuan ematen diren erabilerak erregulatzea, beraien arteko oreka bat bilatuz.
- 2.1.3. Herriko aisialdi-eremuak (Bedaroko Ogella, Eako lapatza eta Natxituko lapatza) egokitzea eta beren erabilerak antolatzea.

P 2.2. Bertako paisaia eta basoak babesteko programa

- 2.2.1. Arau subsidiarioetan interes ekologikoa duten basoei babes-maila bat ematea: Galdizko artadi kantauriarra,...
- 2.2.2. Herriko mendietan bertako baso-espezieen (aritz, artea, pagoa,...) dirulaguntzei buruzko informazioa zabaltzea, beraien landaketa bultzatuz.
- 2.2.3. Herriko plangintzan paisaiaren balioa kontuan hartzea.

P 2.3. Urdaibaiko Biosfera Erreserban sartzeko aukera aztertzeko programa

- 2.3.1. Urdaibaiko Biosfera Erreserban sartzearen inguruan aztertzea, hausnartzea eta

baloratzea: erakunde eta aditu ezberdinen arteko mahai teknikoa, erabakitze-prozesu bat irekitzea,...
P2.4. Gune degradatuak aztertu eta berreskuratzeko programa 2.4.1. Paper-fabrika ondoko presaren egoera aztertzea eta irtenbide egokia bilatzea. 2.4.2. Olagortako lurpeko meategia, burdinola eta karobia aztertzea eta ondasun bezala sailkatzea.
LE3. HERRITARRENTZAKO EKIPAMENDUAK SORTZEA, ETA GARAPEN KULTURALA BULTZATZEA
P 3.1. Hezkuntza-ekipamenduak bultzatzeko programa 3.1.1. Dagoen haur-eskola mantentzea eta indartzea, eta ikastetxe bat zabaltzeko aukera aztertzea.
P 3.2. Gizarte- eta osasun-ekipamenduen kudeaketa mantendu eta zabaltzeko programa 3.2.1. Hirugarren adinekoentzako beharrak aztertzea eta Lagun-etxea izeneko zentroaren zerbitzua bultzatzea. 3.2.2. Gazte Plan bat abian jartzea, herriko gazteek dituzten beharrak ezagutu eta konpontzeko. 3.2.3. Osakidetzako kontsultategiaren zerbitzua bermatzea, eta arreta espezializatua Gernikan egingo den ospitalera bideratzea.
P 3.3. Hizkuntza-normalizazioa eta garapen kulturala bultzatzeko programa 3.3.1. Euskara biziberritzeko plan bat abian jartzea, bere erabilera suspertzeko, batez ere herrigunean. 3.3.2. Herriko kultur- zein kirol-eskaintza erabilera anitzeko instalazio batean zentralizatzea. 3.3.3. Urte osoan zehar kultur-egitaraua edo -egutegia finkatzea: antzerkia, zinea, ikus-entzunezkoak, herriko jaiak, ... 3.3.4. Tabernetako kultur-eskaintza handitzea: bertso-afariak, elkar-komunikazioa, ...
LE4. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE APUSTU EGITEA, HIRIGUNEEN HOBEKUNTZAREKIN JARRAITUZ ETA IRISGARRITASUNA BULTZATUZ
P 4.1. Hirigintza-garapen iraunkorra bultzatzeko programa 4.1.1. Pizgarri fiskalen bidez, abandonatutako eta hondatutako etxebizitzan zein baserrien salmenta eta alokairua sustatzea. 4.1.2. Hirigintza-planeamenduko arauak iraunkortasunerako ikuspegitik berrikustea. 4.1.3. Bertako herritarrentzat, gazteentzat bereziki, etxebizitza-eskaintza bultzatzea. 4.1.4. Bedaroa auzoko plaza egokitzea.
P 4.2. Mugikortasun iraunkorragoa eta irisgarritasuna sustatzeko programa 4.2.1. Herriguneko zirkulazioaren eta aparkalekuen berregituraketa aztertzea, auto-ilarak eta trafikoari lotutako arazoak konpontzeko helburuz. 4.2.2. Herrigunea eta auzo ezberdinak (Bedaroa, Angelutxu-Natxitua,...) lotzen dituzten bideak oinezkoentzat egokitzea. 4.2.3. Bizkaibus enpresako zerbitzua handitzea eta herritarren beharrianetara egokitzea.

- 4.2.4. Udaleko auto baten zerbitzua zabaltzeko aukera aztertzea.
4.2.5. Irisgarritasunerako Udal Plan bat abian jartzea.

**LE5. NATUR-BALIABIDEEN (URA ETA ENERGIA) KONTSUMOA ZENTZUZKOA
IZAN DADILA EGITEA ETA BERAIEEN KUDEAKETA HOBETZEA, ETA
HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEA**

P 5.1. Uraren hornikuntza hobetu eta eraginkor erabiltzeko programa

- 5.1.1. Ur edangarriaren kalitatea bermatzea eta berari lotutako azpiegitura berriztatzea, dauden ur-galerak murrizteko.
5.1.2. Ur zikin guztiak bildu eta tratatzeko saneamendua herriko auzo guztietara zabaltzea: Natxitua, Bedaroa, ...
5.1.3. Herritarren sentsibilizazio-kanpainak egitea etxeko ur-kontsumoa murrizteko.

P 5.2. Udalerrian energia zentzuz kontsumitzea eta energia-eraginkortasuna sustatzeko programa

- 5.2.1. Energia-kontsumoaren udal kontrola etengabe hobetzea.
5.2.2. Espazio publikoetan eta eraikuntza zein instalazio berrien espazio komunetan kontsumo baxuko argiztapen-sistemak erabiltzea.
5.2.3. Etxebizitza berrien eraikuntzan (batez ere, sustapen publikoetan) energia aurreztu eta eraginkor erabiltzeko irzpidiak sartzea.
5.2.4. Gas-sarea udalerriko auzo guztietara sartzeko aukera aztertzea.

P 5.3. Hiri-hondakinen kudeaketan iraunkortasun-irzpidiak sartzeko programa

- 5.3.1. Herritarren sentsibilizazio- eta kontzientziario-kanpainak burutzea ondoko aspektu hauek bultzatzeko: hondakinen gaikako bilketan zein kontenedoreen erabileran herritarren parte-hartzea eta kolaborazioa, birziklapen-tasak haztearen garrantziaz informatzea.
5.3.2. Gaikako bilketako edukiontzien hornidura handitzea, batez ere udaran.

**LE6. UDAL ADMINISTRAZIOAREN KUDEAKETAN IRAUNKORTASUNA,
KALITATEA ETA PARTE-HARTZEA SUSTATZEA**

P 6.1. Udal kudeaketan iraunkortasun-irzpidiak barneratzeko programa

- 6.1.1. Kontratazio-pleguetan eta kanpoko zerbitzuen emakidan iraunkortasun-irzpidiak integratzea.
6.1.2. Udalerrri mailan, Ingurumen Kudeaketako Sistemei buruzko esperientziak garatzea (EKOSCAN, ...)

P 6.2. Udal kudeaketan herritarren informazioa eta parte-hartzea sustatzeko programa

- 6.2.1. Iraunkortasunerako Udal Foroa jarraitzea eta dinamizatzea, herrian planteatzen diren aspektu ezberdinak jorratu eta eztabaidatzeko.
6.2.2. Herritarren eta Udalaren arteko komunikazio-tresnak indartzea: argitalpenak, web orrialdea, ...
6.2.3. Herritarrek udal aurrekontuen zati batean parte-hartzea eta erabakitzea.

P 6.3. Tokiko iraunkortasunari buruzko herritarren sentsibilizazioa sustatzeko programa

- 6.3.1. Tokiko elkarteekin kolaboratzea iraunkortasunaren gaineko sentsibilizazio-kanpainak sustatzeko.
6.3.2. "Aste Berdea" edo "Iraunkortasunerako astea" urtero ospatzea.

3.4 EKINTZEN FITXA DESKRIBATZAILEAK

EAKO TOKIKO AGENDA 21

1.1.1 Ekintza

Langabezian dauden sektoreei Gernikako Behargintzako jardueren gaineko informazioa hobetzea eta helbideratzea.

Lerroa	LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.		
Programa	P1.1 Egoera txarrean dauden sektoreentzako (emakumezkoak, 40 urtetik gorakoak, gazteak,...) enplegua sustatzeko programa.		
Deskribapena	<p>Gernikako Behargintza zentroak Busturialdeko ia eskualde osoan lanpostuak eta enpresak sortzea sustatzen ditu, udalerrriak eta eskualdea modu integralean aurreratu daitezzen.</p> <p>Bere helburuak udalerrietako ekonomia sustatzea eta garapena bultzatzea dira, pertsonak lana lortzeko dituzten aukerak hobetzeko ekintzak eta enpresak sustatzeko ekintza uztartuz.</p> <p>Lana lortzeko aukerak hobetzeko ekintzetan, informazioa zabaltzen du, langabeei berariazko tratamendua ematen die, eta bitartekari-lanak ere egiten ditu, besteak beste.</p> <p>Ekintza honetan proposatzen da Gernikako Behargintzako jardueren gaineko informazioa hobetzea eta interesatuta dauden herriko sektore guztiei (langabetuak, gazteak,...) helbideratzea.</p>		
Lehentasuna	Ertaina	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Periodikotasuna	Puntuala		
Zenbatetsitako kostua (eurotan)	-		
Adierazleak	2. adierazlea. Langabezia-tasa		
Gauzatze-kontrola	Hasita	Udalak zuzenean gauzatzekoa	Ez
Gauzatzeko ardura	Eako Udala, Gernikako Behargintza		
Finantziazioa	Eako Udala, Gernikako Behargintza		

1.1.2 Ekintza

Udan antolatzen diren jarduera ezberdinetan (begiraleak, sorosleak,...) herriko sektore langabetuen enplegua leheneraztea eta bultzatzea.

Lerroa	LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.		
Programa	P1.1 Egoera txarrean dauden sektoreentzako (emakumezkoak, 40 urtetik gorakoak, gazteak,...) enplegua sustatzeko programa.		
Deskribapena	<p>Udako sasoiari turismoari lotutako lanpostu zehatz batzuk sortzen dira herrian: begiraleak, sorosleak, udalekuak,... Azken urteotan zerbitzu horien kudeaketa kanpoko enpresen esku utzi arren, herrian badira horrelako lanak garatzeko prest dauden pertsona interesatuak, bereziki gazteak.</p> <p>Ekintza honetan proposatzen da jarduera ezberdin horietan Udalak bitartekari lanak egitea eta sektore langabetuen enpleguari lehentasuna ematea.</p>		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Periodikotasuna	Puntuala (Urtekoa)		
Zenbatetsitako kostua (eurotan)	-		
Adierazleak	2. adierazlea. Langabezia-tasa		
Gauzatze-kontrola	Hasteko zain	Udalak zuzenean gauzatzekoa	Bai
Gauzatzeko ardura	Eako Udala		
Finantziarioa	Eako Udala		

1.2.1 Ekintza

**Udalerrian martxan dauden ekimen ekonomikoak mantentzea: Egoin S.L.,
Bedaroko arrain-haztegia, ...**

Lerroa	LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.		
Programa	P1.2 Ekonomia-iraunkortasuna eta –dibertsifikazioa sustatzeko programa		
Deskribapena	<p>Orain arte Eako Udalak jarrera aktiboa izan du herriko garapen ekonomikoa suspertzeko eta ekimen ekonomiko berriak sortzeko. Horren ondorioz, garrantzi handiko bi enpresa instalatu dira herrian (Egoin eta arrain-haztegia) eta ostalaritzako sektorea finkatu egin da.</p> <p>Ekintza honetan proposatzen da ekimen ekonomiko horiek guztiak eustea eta sendotzea.</p>		
Lehentasuna	Ertaina	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Periodikotasuna	Jarraitua		
Zenbatetsitako kostua (eurotan)	-		
Adierazleak	3. adierazlea. Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Gauzatze-kontrola	Aurreratua	Udalak zuzenean gauzatzekoa	Bai
Gauzatzeko ardura	Eako Udala, herriko enpresak		
Finantziazioa	-		

1.2.2 Ekintza

Antzineko paper-fabrikak okupatzen zuen kokalekua berreskuratzea eta bertan bestelako ekimen ekonomiko bat garatu: industriagune bat, aisialdi-eremua, ...

Lerroa	LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.		
Programa	P1.2 Ekonomia-iraunkortasuna eta –dibertsifikazioa sustatzeko programa		
Deskribapena	Garai batean Celulosas Artibai izeneko paper-fabrikak okupatzen zuen eremuak kalifikazio urbanistiko bikoitza dauka; alde batetik, industriarako kalifikazioa, eta bestetik, egoitzarako kalifikazioa. Lehenengoari dagokionez, ekimen ekonomiko berri bat garatzeko aukera joratu beharra dago, bertako kokalekua berreskuratzen ondoren: industrialde bat, aisialdi-eremua,...		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Luzea (4-5 urte)
Periodikotasuna	Puntuala		
Zenbatetsitako kostua (eurotan)	-		
Adierazleak	3. adierazlea. Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Gauzatze-kontrola	Aurreratua	Udalak zuzenean gauzatzekoa	Bai
Gauzatzeko ardura	Eako Udala, SPRILUR		
Finantziak	Eako Udala, SPRILUR		

1.2.3. Ekintza

Herrian dagoen eskaintza turistikoa indartzea eta bultzatzea: hiru landetxeak, hotela eta tabernak,...

Lerroa	LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.		
Programa	P1.2 Ekonomia-iraunkortasuna eta –dibertsifikazioa sustatzeko programa		
Deskribapena	<p>Udalerrian ondoko eskaintza turistikoa oparotzeko dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hiru landetxe: Andutza, Ea astei eta Basolore. ▪ Hainbat jatetxe, taberna eta hotel: Ermintxo jatetxea-hotela, Ttakun taberna, Aritza jatetxea, Arrantzale taberna, Txangurru taberna, Eskoikiz taberna, Itsasondo taberna, Herriko taberna, Elizondo taberna. <p>Ekintza honetan proposatzen da eskaintza hori indartzea eta bultzatzea.</p>		
Lehentasuna	Ertaina	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Periodikotasuna	Jarraitua		
Zenbatetsitako kostua (eurotan)	-		
Adierazleak	3. Adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila.		
Gauzatze-kontrola	Aurreratua	Udalak zuzenean gauzatzekoa	Bai
Gauzatzeko ardura	Eako Udala		
Finantziak	-		

1.2.4 Ekintza
Bertan behera utzitako nekazal lursailen inbentarioa egitea.

Lerroa	LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.		
Programa	P1.2 Ekonomia-iraunkortasuna eta –dibertsifikazioa sustatzeko programa		
Deskribapena	<p>Eustat-en arabera, 1999. urtean Ean nekazaritzako ustiategiek hartutako azalera 1.199 Ha zen, beraien batez besteko tamaina Busturialdeko eta Bizkaiko batez bestekoa baino txikiagoa izanik. Azienda gabeko ustiategiek (%53,5) aziendadunekoek (%46,4) baino azalera handiagoa okupatzen zuten.</p> <p>Beste lurralde-eremutan gertatu legez, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak gero eta garrantzi gutxiago dute; eta horren ondorioz, herriko zenbait lursail bertan behera lagata daude, inolako jarduerarik gabe. Horregatik, egoki jotzen da lursail horien inguruko inbentarioa egitea, geroago beroien berreskurapenerako neurriak kontuan izateko.</p>		
Lehentasuna	Ertaina	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Periodikotasuna	Puntuala		
Zenbatetsitako kostua (eurotan)	-		
Adierazleak	3. Adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Gauzatze-kontrola	Hasteko zain	Udalak zuzenean gauzatzekoa	Bai
Gauzatzeko ardura	Eako Udala, Urremendi-Mendi Nekazaritzako Elkarte		
Finantziarioa	Urremendi-Mendi Nekazaritzako Elkarte		

1.2.5 Ekintza

**Udalerriko merkataritza-eskaintza mantentzea eta handitzea, merkatariei-
elkartearen esku-hartze aktiboarekin.**

Lerroa	LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.		
Programa	P1.2 Ekonomia-iraunkortasuna eta –dibertsifikazioa sustatzeko programa		
Deskribapena	<p>Lehenago aipatutako ostalaritza-ekipamenduez gainera, udalerrian martxan dabilen merkataritza-eskaintza ondoko saltokietan zehazten da: elikagaiak (Ainhoa denda, Errekagane denda), bestelakoak (Adats ileapaindegia, Aloña denda, Santi izozkiak eta gozokiak, Framazia), nekazaritza (Madarixa negutegiak, Antonio Azurmendi basolanak).</p> <p>Azken boladan, harategi batek bere aktibitatea bertan behera utzi du, eta saltoki gehiago ixteko arriskua badago, sektorea berpizteko neurriak martxan jarri ezean. Alde positibo moduan esan daiteke herria badagoela merkatariei elkarre bat, Natxitubea, eta bere esku-hartzea ezinbestekoa dela merkataritza bizirik mantentzeko herria.</p>		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Ertaina
Periodikotasuna	Jarraitua		
Zenbatetsitako kostua (eurotan)	-		
Adierazleak	3. Adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Gauzatze-kontrola	Hasteko zain	Udalak zuzenean gauzatzekoa	Bai
Gauzatze-ardura	Eako Udala, Natxitubea Merkatariei Elkarteak.		
Finantziak	-		

1.2.6 Ekintza

**Lanbide ezberdinetako langileentzat (igeltseroak, iturginak, elektrikariak,...)
konponbide bat bilatzea: lokal bat,...**

Lerroa	LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.		
Programa	P1.2 Ekonomia-iraunkortasuna eta –dibertsifikazioa sustatzeko programa		
Deskribapena	Eraikuntzari eta lanbideei lotutako ekimen edo behargin asko dago herrian: Aldekogarai, Gaztelu, Madarixa, Arana anaiak, Gorosti zaharra indusketak, Txuko iturgintza, Iñaki margolaria, Iñaki tailer elektromekanikoa,...		
	Horrelako ekimenak tamaina txikikoak diren arren, herriko ekonomiaren zati garrantzitsu bat bada, eta horregatik egoki ikusten da sektore horren beharrak aztertzea eta irtenbide bat bilatzea: lokal zehatz batean biltzea,...		
Lehentasuna	Ertaina	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (01- urte)
Periodikotasuna	Puntuala		
Zenbatetsitako kostua (eurotan)	-		
Adierazleak	3. Adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Gauzatze-kontrola	Hasteko zain	Udalak zuzenean gauzatzekoa	Bai
Gauzatzeko ardura	Eako Udala, lanbideetako beharginak		
Finantziak	-		

1.2.7 Ekintza**Herriaren garapen ekonomikoa suspertzeko batzorde iraunkorra antolatzea.**

Lerroa	LE1. GARAPEN EKONOMIKO DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRERANTZ AURRERA EGITEA.		
Programa	P1.2 Ekonomia-iraunkortasuna eta –dibertsifikazioa sustatzeko programa		
Deskribapena	Iraunkortasunerako Udal Foroan proposatu bezala, herriaren garapen ekonomikoa suspertzeko batzorde iraunkorra sortzea aukera egokia izan daiteke Eako etorkizun ekonomikoan interesa duten eragile eta pertsona guztiak biltzeko. Bertan, bi aspektu jorratuko lirateke, nagusiki: dauden ekimen ekonomikoak sendotzea, eta jarduera ekonomiko berriak aztertzea.		
Lehentasuna	Altua	Gauzatze-epea/Ezartze-epea	Laburra (0-1 urte)
Periodikotasuna	Puntuala		
Zenbatetsitako kostua (eurotan)	-		
Adierazleak	3. Adierazlea: Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
Gauzatze-kontrola	Hasteko zain	Udalak zuzenean gauzatzekoa	Bai
Gauzatzeko ardura	Eako Udala		
Finantziarioa	-		

2.1.1 Ekintza**Itsasertzaren kalitatea eta biodibertsitatea babesteko neurriak hartzea: arrantzaren aktibitatea kontrolatzea, haunkak biltzea,...**

Lerroa	LE2. UDALERRIAN INTERES EKOLOGIKOA ETA PAISAJISTIKOA DUTEN GUNEAK ETA ELEMENTUAK BABESTEAK.		
Programa	P 2.1. Kostaldea eta hondartzak babestu eta birsortzeko programa		
